

EGUNEKO AHOLKUA

23. AHOLKUA: BARATZEZAINZA AHOLKUAK. NOLA BEREIZTU ELIKAGAI EKOLOGIKO BAT? ZER BETE BEHAR DUTE ELIKAGAIEK EKOLOGIKOAK IZATEKO

Elikagai asko ditugu merkatuan ekologikoak bezala saltzen direnak, baina nola bereizi dezakegu benetan ekologikoa den edo ez produktu bat?... Elikagai ekologikoen honako baldintza guzti hauek bete behar dituzte:

1. Europako produktu ekologiko guztiek logo hau daramate:



2. Europako logoa eramateaz gain, produktuen ekoizpena, inportazioa edo komertzializazioa kontrolatzen duen erakundearen logoa daramate: Euskadin adibidez. ENEEK-en logoa daramate



3. Modu naturalean produzitutakoa izan behar du elikagaiak. Bere ekoizpena arautzen duten legeak eta egiaztatzen duten erakundearen arauak (ENEEK Euskadin) bete behar ditu produktuak.
4. Elikagaiaren produkzioaren kate osoan ez dira transgenikorik erabiltzen.
5. Fruitu, barazki haragiak, e.a. direla ere, kimikorik gabe egindakoak dira (antibiotikorik gabe, herbizida, hormona, fungizida, bestelako pestizidarik gabe ere).
6. Elikagai begetalak ongari naturalez simaurtutako lurretan sortzen dira, ongari kimikorik erabiltzen ez diren lurretan alegia.
7. Haragiak eta animalietatik datozen beste produktuak (arraultzak, e.a.) modu ekologikoan elikatutako animalietatik datoz. Animalia horiek ez dute jaten kimikoekin hazitako belarrik, ezta ere pentsu industrialik.
8. Haragi ekologikoa abereen behar fisiologikoen eta berezko jokabidearen errespetatzen duen sistemaren bitartez hazitako animalietatik dator beti.
9. Trazabilitatea bermatzen dute elikagai ekologikoen: hasieratik, elikagaia garatu eta merkaturatu arteko prozesu osoa jarraitzeko aukera ematen dute.
10. Legekezarritakoosakontrolakbetetzendituzteelikagaiekologikoen.